

# Aretxagazeta

Aretxabaleta ● 2000ko otsailaren 10a ● 184. zka.



**Ikasle langileak  
eta langile ikasleak**

Iturririk iturri: Key taldea ● Iritzia: Oier Sarasua ● Kirolak: Manolo Zubillaga



# FRONTERA



**Potentzia haundia  
kontsumo txikia**

**OPEL** 

Garaje Talleres Norte, s.l. Zerbitzu ofiziala

Basabe poligonoa A-13 • 20550 ARETXABALETA • Tfnoa: 943 79 62 65/Fax: 943 77 16 20

## Lauxitta TABERNA

**Pintxoetan  
espezialitatea**




**ORDUTEGIA:**  
Goizeko 10etatik  
gauko 10etara

**Zatoz  
Lauxittara!**

Lauxitta kalea, 4 20550 ARETXABALETA  
☎ 943 79 29 36



## Zer iruditzen zaizu edarien prezio igoera?



**Sabino Mendizabal**

Niretzat prezioak eskaintzen den kantitatearekin ez datoz bat, hau da, desproporcionatua da. Edariak oso garesti daude.



**Monse Puerto**

Prezioak igo, igo egin behar dira, baina beharbada ez urtero. Nire iritziz edari eta kafearen prezioak oso altu daude.



**Cecilia Barandiaran**

Beste gauza batzuek igo-tzen badute, edariak ere igo egin beharko du. Dena dela, ni ez nago oso enteratua edarien prezioekin.



**Clemente Jimenez**

Igoera gehiegizkoa ez bada ondo dago. Justua den ala ez ez dakit. Iritzi bat eman aurretik, eurei zenbat kentzen dieten jakin beharko nuke.

### ESKUTITZA



#### GATZ BAKO NESKAK

Aluzinauta. Aluzinauta gaz 81ien jaixotako nesken jarre-riakin. Kinttuen dantza ekitaldixan inguruan kritika asko entzuten die: "eztakitt zeinenak oso ondo itten dau, bestiek barrez ez" etab. Baina gutxienez eiñ.

Lehenengo aldiz dantzan iñ gauenian, kinttako sei neskak urten euien eta bigarren aldiz iñ gauenien barrez hiruk. Karta honekin urten dauein neskei eskerrak emun gureutzeu eta urten eztaueinei barrez gatz bako neska batzuk besteik eztiela eta eruen jarrera lotsagarria dala esan. Ondikan beste lau asteburu geldiketan die eta aukeria gutxienez badaukie jarrera hori aldaketako. Haber aldaketan dauien!"!!

Besteik barik.

Aurtengo Santa Ageda mutilak



#### ARETXAGAZETATIK ESKOLA GUZTIETARA

Behar bada honez gero konturatuta egongo zarete eskoletan matrikulatzeko epea zabaldu dela, publizitatea, normalean baino eskolei buruzko berri gehiago... Gero eta ume gutxiago egoteak, kompetentzia dakar, kompetentzia gogorra. Guk, Aretxagazetakook, ordea, ez dugu sekula ez baten ez bes-teen alde egin, nahiz eta batzuek ez sinistu. Eskola guztietako berriak ateratzen saiatu gara beti, nongoa den begiratu gabe. Norbaiti, ordea, ez dela horrela izan iruditu bazaio, barka dieza-gula, ez baitugu intentzio horrekin egin.

Aretxagazeta, atxabalta-rren zerbitzura dago eta egongo da beti, baina ez eskolen zerbitzura. Eskoleta-

ko berriak ateratzeko ez daukagu inolako arazorik, baina berri guztiak ezin ditugu kaleratu, orduan eskola-ko aldizkari bihurtuko litzatekeelako. Eskoletatik, bertan egiten denaren informazioa bidaltzea benetan eskertuko genuke, sarritan zaila baita barruan egiten denaren berri izatea, baina gero Aretxagazetako langileok erabakiko dugu zer atera eta zer ez, askotan berri-entzatzat lekua ere faltan izaten baitugu.

Gaizki ulerturik egon ez dadin, aldeztu aurretik gure egoeraren berri eman nahi izan dugu.

*Aretxagazetako langileak*

## Aretxagazeta

184 zenbakia  
2000ko otsailaren 10a.

Durana 11, 151 postakutxatila  
Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es.  
Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta  
Argitaratzailea: Aretxabaletako  
Komunikabideak-Loramendi elkarte.

**Erredakzio-kontseilua:**  
Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta,  
Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka  
Etxabe, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz,  
Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza  
Antxia.

**Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:**

Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.

**Kolaboratzaileak:**

Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni  
Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma  
Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia,  
Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala,  
Euskaltegia.

**Banatzaleak:**

Aitor Urrutia.

**Inprimategia:**

Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 2.500 ale.  
Aretxagazeta paper ekologikoa egiten da.  
Lege gordailua: SS378 / 94.  
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egi-  
ten aldizkarian adierazitako esanekin eta  
iritziekin.

Erakunde hauen laguntza



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru  
Aldundia



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



**DIBERTSIOA EZ DA APURTZEA**

Domeka goiza da, otsailaren 6a. Kalera irten eta Santa Kurtz kalean aparkatuta nuen kotxeari atzerako ispilua apurtu diotela konturatu naiz. Amorrua nagusi da nigan, baina ezin nezake ezer egin. Hau egin duena harrapatuko banu...

Harantzago ertzainak daude, argazkiak ateratzen, itxura denez, neure kotxea bakarrik ez da izan kalte-tua, aldameneko beste laubost kotxeri ere berdina egin diote.

Gaurko gizarte honetan horrelako buru gutxi duenik egon al daiteke? Dibertsioa gauza bat da eta norberarena ez denari kalte egitea beste bat. Bi gauzok ondo desberdintzen jakitea funtsezkoa dela uste dut. Parranda, juerga eta dibertsioa ondo dago, baina utzi paketan gainontzekoa. Gustora galdetuko nioke hori egin duenari, bere kotxeari edo etxeakoari gauza bera egingo liokeen. Hurrengoan apur ezazu zeure kotxea, hori dibertigarria iruditzen bazaizu!

O. B.  
16302935

**UDALETXEAN TEKNIKARI ERDALDUNA?**

Aretxagazetako 183. alean argitaratu zen eskutitzean egindako "gonbitea" onartuz hainbat puntu argitu nahi genituzke.

Lehenik eta behin onartu egin behar dugu akats larria egin dugula, ez baike-nuen euskararen ezagutza kontuan hartu aipatzen den kontratazioa egiterakoan.

Dena den aipatutako eskutitzean, gure ustez garrantzia duen datu bat aipatzeke uzten da: pertso-

na hau ez da behin betiko kontratatu, lanpostu hori beteko duen pertsonaren kontratazio prozesua burutzen den bitartean baizik (Aretxagazetako ale bereko 4. orrian ondo azaltzen den bezala).

Badakigu, ez honek, ezta uztaitetik hona lanpostu honekin bizi izan dugun egoera bereziak ere, ez dutela gure akatsaren garrantzia arintzen, baina uste dugu egia osoa esatea ez dela ohitura txarra.

Bestalde gutunean, egia ez diren beste gauza batzuk ere aipatzen dira: pertsona honek ez du kontuhartzailer lanpostua betetzen, kontuhartzailerzako teknikariarena baizik; udaletxean ez dago ez euskalduntze planik ezta euskalduntze tekniaririk ere, normalizazio plana eta normalizatzailea baizik...

Udalbatzari (edo Udal Gobernuari, inoiz ez Udaletxeari) nork hartu behar dizkion kontuak galdetzen dizue. Erantzuna garbia da: Aretxabaletako edozein hiritarrek du hori egiteko eskubidea eta obligazioa. Horregatik, benetan eskertzen dizuegu, gure gestioa hobetzeko baliagarri izango den zuen aportazioa

*Aretxabaletako Udal  
Gobernu Batzordea*

**HURBILKETA BERRIA**

"De Guatemala a Guatepeor", honetara murrizten da Gobernu espagnolak "hurbilketa" behin eta berriz erakutsi diguna. Kepa Urria berriz ere kartzelaz aldatua izan da, oraingo honetan Valdemorotik Alcalá Mecora. Egia esan, ez da Madriletik mugitzen, baina Keparentzat horrek bisitak galtzea suposatzen du, bisita permiso guztiak berriztu beharra, eta hori egin artean familiakoen bisitak bakarrik jaso ditzake. Horrez gain, horrelako berehalako aldaketak kartzela erregimen berri batera egokitu beharra ere eskatzen du, orain artekoarekin guztiz desberdina dena. Plataformatik gure animoak bidaltzen dizkiogu Kepari, eta bere hurbilketa erreibindikatzen jarraituko dugula adierazi nahi diogu, horrela, bihar ostirala arratsaldeko 7etan udaletxe aurrean bilduko gara.

Horrez guztiaz gain, Aretxabaletako herria animatu nahi dugu, bere indarrak berriztu eta mobilizazioetan parte har dezan. Ahaztu ditzagun hauteskundeak edo tendentzia politikoak, Euskal gizarteak eta parlamentuak presoan eskubideen inguruan demokratikoki erreibindikatzen dutena eska dezagun. Beraz, udaletxe aurrean itxarongo zaituztegu, otsailaren 11 eta 25ean, arratsaldeko 7etan. Ah! eta domekan, hilak 13, Keparen urtebetetze eguna da, oraindik zorion gutunik bidali ez badiozue oraindik garaiz zaudete, berak eskertuko dizue. Bere helbide berria ondorengoa da:

**KEPA URRA GURIDI**  
C. CUMPLIMIENTO MADRID 2  
CTRA. DE MECO Km. 5  
MODULO 5  
28800 ALCALA DE HENARES  
(MADRID)

*Euskal Presoak Euskal  
Herrira Aretxabaletako  
Plataforma*

**ESKER ONA**

2000.eko urtarrilaren 29an hil zen  
**Miren Espin Castro**

Bere familiak  
bihotzez eskertzen ditu  
jasotako doluminak  
eta hileta elizkizunetara etorri izana.





### ALMENEKO INFORMAZIO ETA DOKUMENTAZIO ZENTRUA OFIZIALKI INAUGURATU DA

Urtarrilaren 10etik aurrera ikasleek jadanik bertan ikasteko aukera izan arren, pasa den otsailaren 2an, inauguratu zen ofizialki Almeneko Informazio eta Dokumentazio Zentru berria. Inauguraketa ekitaldian, Alfonso Vázquezek heziketa eta jakintzazko gizartearen inguruko hitzaldia eman zuen. Heziketa mundua nola ari den eboluzionatzen azaldu zuen eta jakintzazko gizarteak duen garrantzia azpimarratu. Honen ostean, informazio eta dokumentazio zentru berria ikusteko aukera izan zuten bertan bildutakoek. Oso diseinu modernoa duen zentru honek hainbat zerbitzu eskainiko die irakasle eta ikasleei, kontsultak egiteko liburu, aldizkari eta CDak, bideoak ikusteko aukera, internera sarbidea... Zentru honen arduraduna Mañole Ezenarro izango da eta bitartekaria, berriz, Iñaki Agiriano.

## San Blas egunean Amabirjina berria bedeinkatu zen

Urtero legez, otsailaren 3an, San Blas eguna ospatu zen Apotza-Etxebarriko Sailuenteko ermitan. Eguraldi onak lagunduta ume, gazte eta nagusi ugari bildu zen bertan. San Blas, eztarri eta belarriko gaixotasunetatik babesten duen santua izanik jakiak izan ziren nagusi bedeinkatzeko orduan. Gaur egun, San Blas opila eta batez ere, gozo gauzak eramaten badira ere, lehengo ohitura gatza eta azukrea eramatea zen. Horrela gatza edo azukrea jaki guztiei botatzen zaienaz denak bedeinkatuak gera daitezzen.

### Sailuenteko Andra Mari berria

Jakien bedeinkapenez gain, meza garaian, Sailuenteko

Andra Mari berria bedeinkatu zen. Lehengoa, orain 30 bat urte Aretxabaletako Parrokiara jeitsi zen. Egun batzuetarako ekarri bazen ere geroztik ez da gehiago bueltatu. Amabirjina honen balioa haundia izanik, Sailuenteko ermitan ez litzatekeela seguru egongo eta harako, berria egitea erabaki zen.

Sailuenteko bigarren Andra Mari hau egurrezkoa da, intxaur egurrez egina, eta Joxe Ugarte izan da egilea. Parrokian dagoenaren berdina egin nahi izan da, neurri eta itxura berberetako. Jarri ere, lehengoa zegoen leku berean jarri da, San Juan Batailatzailearen gainean hain zuzen. Ondo ikusteko altu xamar gelditzen bada ere, benetan Amabirjina dotorea egin du Joxe Ugartek.



San Juan Batailatzailearen gainean jarri da Amabirjina

### GAZTETXEKO PROIEKTUA AURRERA

Orain bi aste Gaztetzearen etorkizunari buruzko hausnarketa egiteko 35 bat lagun batu ziren Galartzan. Adin, koadrila eta giro desberdinetako jendeak erantzun zuen gaztetzeari egindako deialdira eta benetan gustora egon ziren bertan bildutakoak. Aztertu zituzten gaien artean, gaztetzearen funtzionamendua, gestioa, finantzaketa... izan ziren. Gaztetzeari bat zer den ere aztertu zen.

Azken honen inguruan ateratako ondorioetako bat zera izan zen, eraiki nahi den gaztetzeari, zabala, plurala eta dinamikoa izan beharko duela. Honen guztiaren ondoren udaletxean aurkezteko proiektua lantzea da asmoa.

Horretarako martizenero asanblada egingo da gaztetzeari 7,30ean.

### URTARRILAREN 27KO GREBA ARRAKASTATSUA

Pasa den hilaren 27an EHK deituta, euskal presoek alde egin zen grebak, erantzun gabala izan zuen herrian. Goizean, banketxe, taberna eta denda batzuek atek zabaldu bazituzten ere, eguerdirako dena itxita zegoen. Hainbat enpresetako langileek ere, greba egin zuten. Presoen aldeko solidarioek, zabalik zeuden komertzioen aurrean euren protesta adierazi zuten.

**San Migel  
erretegia**

Apotza auzoa, 23  
Eskoriatza • 943 71 48 71

**Martín**  
RELOJERIA • BITXITEGIA

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72

*Bere bezeroen zerbitzura*

**BASABE**  
jatetxea

Basabe bidea z/g  
Tel.: 943 79 91 84  
Aretxabaleta

**DOIKALSE**

**Elektroerosio  
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 82 44



## Santa Ageda mutilak dantza eta parranda artean

2000. urteko Santa Ageda mutilek pasa den astebukae-ran ekin zioten festari. Eguakotxean baserriz base-rri ibiltzea tokatu zitzairen. Goizeko 6etan aterata, Oro, Azatza, Arientza... aldera joan ziren makilak eskuan hartuta. Fresko egiten ba-zuen ere ez ziren kikildu, ez Santa Ageda mutilak, ezta trikitixa jotzera joan ziren neskak ere. Bazkal ostean, berriz, Izurieta eta Galartza aldera. Aurten, gainera, domeka asko dituzte parran-dan egiteko eta dirua behar-ko dute.

Hurrengo egunean, otsai-lak 5, Santa Ageda, kaleta-rreri tokatu zitzairen santa ageda kantua entzun eta borondatea botatzea. Aur-tengo kinttuak, gutxi samar izanda (40ra ez baitira hel-tzen), etxebizitza guztietara joaterik ez zuten izan. Arra-tsaldean, bestalde, benetako froga etorri zen, jende

aurrean dantzan egitea. Bat-zuek oso ondo eta beste bat-zuek larri samar, denek egin zuten itxuran gelditze-ko ahalegina. Izan ere, jende ugari bildu baitzen plazan bai zapatuan eta bai dome-kan, aurtego Santa Ageda mutilak ikusi nahirik.

**Etxaflero hotsak tamainan**  
Azkenengo urteetan, herri-tarren kexa etxafleroak izan dira. Aurten, lehenengo bi egunak pasatu dira eta egia aitortu behar badugu, etxa-flero hotsak tamainan eta behar den orduetan entzun direla esan behar. Aste buka-era pasatu ostean, hainbat apurketa izan badira ere herrian, trafiko seinale bat-zuk, kotxeetako ispiluak... beste bukaera batzuetan gertatu ohi direnak dira. Ea gelditzen diren hurrengo lau domeketan ere jaia izaten den nagusi, ohiturak urtee-tan jarrai dezan.



Gero eta Santa Ageda mutil gutxiago dira kantuan, dantzan eta parrandan egiteko

**URBALTZ**  
TABERNA

Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP  
*Garbiketa*  
*orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

**J.J**  
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA  
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34  
943 79 31 87

**M**obiliario  
**ARENAZA**

. ALTZARIAK  
. DISEINUA  
. APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**OSKAR**  
**GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
ARETXABALETA

Jou Diaz

*Starakina*

Loramendi 1, • Tel: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA


**M**

**MEMESA**

*Industri hornidurak*

Tel.: 943 71 24 11  
ARETXABALETA





## Kurtzebarri eskola eredu


Azken urteotan bezala aurren ere bost ikastetxeren bisitaldia izango dute otsaila eta martxoan zehar Kurtzebarri eskolan. Hauek hiru Bizkaitik etorriko dira Basauri, Etxebarri eta Iurretatik eta beste biak Gipuzkoa bertatik, Plaentxi

eta Oñatitik, hain zuzen

Eskola bakoitzeko irakasleak, astebetetz, talde lanean arituko dira Kurtzebarri eskolako hezkuntza proiektua, hizkuntzaren trataera eta bertan erabiltzen den metodologia aztertzen.

■ **KIROLETXE AURREKO PARKEA** Kiroletxe parean lur sail handia dago. Momentuz ez dago ezer eta jendeak, zer egingo ote den kuriositatea dauka, behar bada igerilekua? Hirigintza sailetik adirazi dutenez ez dago horrelako asmorik. Belarra bota eta berdegune handi bat egingo da. Erreka kontran, berriz, pasealekua. Lan hauek, ordea, poli-poli egingo dira, beraz, momentuz itxaron egin beharko da. Dena dela, lur sail hau kirol zerbitzuetarako izendatua dago eta nork daki, agian, noizpait igerilekua egingo da.

■ **UR-IHESAK KONPONTZEN** Urtarrilaren amaiera aldera hasita, ur-ihesak antzeman eta konpontzen ari dira udaletxeko zerbitzuetako langileak. Aldiro-aldira egiten den lana da hau. Urkultutik, ur asko galtzen dela abisua pasa ostean, balbulaz balbula non dagoen galera frogatzen da. Agustindarren komentu alboan eta lehengo kuarter parean ur-ihesak atzeman eta jadanik konpondu dituzte.



**Kepa Urria Valdemorotik Alcalá Mecora**

Kepa Urria preso atxabaltarra, Valdemonon zortzi hilabete inguru egon ostean, Alcalá Meco kartzelara bidali zuten pasa den zapatuan. Inolako arrazoirik eman gabe arratsaldeko 4retan Valdemorotik atera eta gaueko 9etan heldu ziren Alcalá Mecora, Madrilen jira eta buelta ibili ostean. Alcalán, 5. moduluan isolamenduan sartu dute.

## EUSKAL MITOLOGIAREN INGURUKO HITZALDI POLITA

Pasa den hilaren 3an Lora-mendi Euskara Elkateak antolatuta, Euskal Mitologiaren inguruko hitzaldi interesgarria eskeini zuen Imanol Biain oñatiarrak. Hamahiru bat lagun elkartziren udaletxe zaharrean, Oñati eta inguruko parajeetako mitologiaren gaineko kontuak entzuteko.

Oñatiz gain, Aizkorri, Aloña, Andarto, Anboto eta beste hainbat parajeetako mendi, kobazulo, baso eta baserriak agertzen ziren diapositiba benetan politik emanaz, sorginkeria izan zen gai nagusia Imanolen hitzaldian. Inkisizio garaiko istorio kuriozoak gogorazi zituen, aitteitte-amamek eta hauen gurasoek kontatu ohi zituzten istorioak. Sorginkeriaz lotutako berbak ere geratu omen direla gure artean esan zuen Imanolek, sorgin-haizea eta sorgin-eskoba, esaterako.



## "Kurtzebarri eskola garai berrietan ere... garaiz"

Haur Hezkuntza: 2tik 6ra (2 urtekoak goiz eta arratsaldez)  
Lehen Hezkuntza: 6tik 12ra  
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 12tik 16ra

Edozein argibide eskatzeko 943 79 00 49 - 943 79 57 40

**ZATOZI**  
Gure eskola eta Hezkuntza  
Proiektua ezagutzera

**MATRIKULA EPEA**  
**IREKITA:**  
otsailaren 7tik 18ra



## 1.143 milioiko aurrekontua onartu zen 2000. urterako

Urtarrileko azkenengo egunean egindako ohiko osoko bilkuran bost puntu onartu ziren. Lehenengo, azkenengo hiru osoko bilkuretako akten onarpena egin zen. Urats Gain zaharren egoitzako estatutuen aldaketa ere baieztatu zen, bai, sede sozialaren aldaketa bai, bertako langileek funtzionario izateko zuten debekua kentzea. Funtzionario bihurtzen diren edo ez, bigarren pausu batean aztertuko da. 25. zonaldeko, "Villa Genovevako", obrak direla eta pertsona batek errekurtsioa aurkeztua du. Errekurtsio honi aurre egiteko abokatu eta prokuradoreak izendatu ziren. Abokatua, Julio Azkargorta Arregi izango da.

Programan ez zeuden beste bi puntu ere onartu ziren. 33. zonaldeko, Baintxeko, plan partzialaren behin behineko onarpena egin zen, errekurtsioa aurkeztua zuen pertsonak berau kendu ostean. Azkenik, Ilargi plazan etxebizitzak egiten ari den promotoreak izena aldatzean, Udalak berarekin egindako hitzarmena berretsi zuen.

**2000. urterako aurrekontuak**  
Astelehenean, otsailak 7, berriz, 2000. urterako aurrekontuak onartu ziren, Maria Rosario Arrue PPko zinegotziaren abstentzioarekin. PSEko Iñaki Pierrugues, berriz, ez zen agertu. 1.143 milioikoa izango da aurtengo aurrekontua. Iñaki Uribetxebarria, Ogasuneko zinegotziaren esanetan, Udalak gastuak behar bezala gestionatu behar ditu, aurrekontuetako zerbakiak gainditu barik. Lau urte hauetarako 1.200-1.500 milioiko inbertsioak egin nahi dira, urtero 400 milioi inguru gastatuz. Urte honetarako defizi-

ta, berriz, 176 milioikoa izatea espero da. Iñakiren esanetan, plan estrategiko bat egitea komeni da, Aretxabaletak zer premia dituen ikusi eta dirua zertan eta nola gastatu erabakiz.

### Bake epaitegiko idazkaria eta jakinarazlea

Aurrekontuez gain, beste hiru puntu ere onartu ziren. Urtero legez, Eskoriatza eta Aretxabaletako Udalek, kirola eskolan lantzeko Foru Aldundiaz hitzarmena sinatzea erabaki zen. Hitzarmen

honen arabera, milioi eta erdiko diru laguntza jasoko da. Aretxabaleta eta Eskoriatzako bake epaitegiko idazkaritzak erroteko batzea ere onartu zen. Bi herriak batzean, 10 mila biztanletik gora izango direnez, Eusko Jaurlaritzak, bake epaitegiko idazkaria eta jakinarazlea jarriko ditu.

Azkenik, Araba eta Gipuzkoako mugarrak ikusi eta berregiteko batzordea izendatu zen. Elgeako zentral eolikoko lanak hasi zirenean, bertako lurren jabeak, mu-

garriak mugituta zeudela kexatu ziren. Eusko Jaurlaritzara berri eman eta honek, mugak ikustera joateko batzorde bat osatzea eskatu zuen. Batzorde hori, alkateak, 2 zinegotzik, idazkariak, hirigintzako teknikariak eta mugak ondo ezagutzen dituzten bi edadeko pertsonak osatu behar dute. Zinegotziak, Jose Antonio Zubizarreta eta Xabier Etxebarrieta izango dira eta edadeko bi lagunak, berriz, bi arrasatear, Jose Bixente Etxabe eta Jose Mari Urrutia.

### 1.143 milioiko aurrekontua onartu zen

■ Ongizatea	69 milioi
■ Ingurugiroa	100 mila
■ Garapen ekonomikoa	140 milioi
■ Kirolak	31 milioi
■ Kultura	31 milioi
■ Kontsumoa	1,5 milioi
■ Hezkuntza	12,5 milioi
■ Euskara	26,5 milioi
■ Hirigintza	286 milioi
■ Obra eta zerbitzuak	176 milioi
■ Baserrialdea	10 milioi
■ Ogasuna	65 milioi
■ Idazkaritza	18 milioi
■ Lehendakaritza	271 milioi
■ Udaltzaingoa	3,5 milioi

#### 1.143 milioi hauetatik 400 milioi, inbertsionarako erabiliko dira.

##### Hona garrantzitsuenak:

■ Garapen ekonomikoa, enpresa martxan jartea	7 milioi
■ Formaziorako ekipamendua	20 milioi
■ Kiroletxeko sarrera konpontzea	2,5 milioi
■ Loramendi kaletik Baintxera joango den errepidea egitea	100 milioi
■ Gernika plaza hiriztatzea	16 milioi
■ Errotabarriko pasialekua egitea	34 milioi
■ Zineko proiektua	20 milioi
■ Saneamendu eta hornikuntza plana	50 milioi
■ Etxebizitzak egiteko lur sailak erostea	52 milioi
■ Institutuari diru laguntza	8 milioi
■ Hiriztatze lanak egitea	11 milioi
■ Gaztetxea berriztatzea	9 milioi
■ Durana 13ko etxebizitza berriztatzea	12 milioi
■ Udal bideak konpondu eta oztupoak kentzea	5 milioi
■ Baserrietako bideak kontserbatzea	2,5 milioi
<b>Urats Gain zaharren egoitza</b>	<b>68,5 milioi</b>
- Udalaren aportazioa	32 milioi



*1993. urtean sortu zuten bi lagunen artean, Agurtzane Elkoro eta Gotzone Güemes, eta jolas gisa hasi zena, hazten joan da enpresa itxura hartu arte. Azkenengo egin duten lanetako bat Aretxagazetako maketa aldatzea izan da. Hori dela eta, Agurtzanekin izan gara.*



## Key taldea

### Maketazioa eta diseinua lantzen

■ **Noiz sortu zenuten enpresa?**

■ 1993an Gotzone eta bion artean hasi ginen. Handik hiru urtera, Garbiñe Beitia sartu zen eta orduantxe sortu genuen benetako Key taldea. Hasierakoa jolas bat izan zen, gehiegi pentsatu gabe hasi genuen jolasa. Benetako Key taldea eta benetako enpresa orain hiru urte jarri zen martxan.

■ **Zergatik maketazioa eta diseinua lantzen duen enpresa?**

■ Zein eratako enpresa ez nekien baina neure enpresa izan nahi nuela bai. Orain urte batzuk Aretxagazetan lanean ibili nintzenean, maketazio mundua gustatu zitzaidan eta Felis Beltran de Herediak diseinu eta maketazio enpresa jarteko aholkatu zidan. Nik diru apur bat jarri, beste apur bat Gotzo-

neri eskatu eta horrelaxe hasi ginen.

■ **Zer egiten duzue Keyn?**

■ Bi zatitan banatuta dauka diseinua eta maketazioa. Diseinuan, irudi korporatiboak, hainbat produkturen kaxetako diseinua, katalogoen diseinua... Maketazioan, berriz, aldizkariak, testu liburuak... maketatzen ditugu.

■ **Hasi zinetenetik hona asko aldatu al dira gauzak?**

■ Bai, asko. Gurea abentura bat izan zen eta ez genuen hainbestera joango zenik espero. Beraz, zeharo aldatu zaigu bizitza, hitz batean esanda, dena. Ordenagailu mundutik hasita, ezer ez jakitetik dena jakitera pasatu baikara, jende ugari eta ezberdina ezagutzera. Lan bolumena ere izugarri igo zaigu. Jolas bat zena poliki-

poliki serioa den zerbaitetan bihurtzen joan da. Orain, berriz, oso serioa da, gure bizitza delako.

■ **Nolako bezeroak dituzue?**

■ Lehenengo urteetan gehienbat dendariak ziren, partikularrak. Gehienbat "free lance" gisa lan egiten genuen. Gero, enpresa mundura jo beharra geneukala konturatu ginen eta azken urteotan hainbat enpresakin gabilta, kooperatibak esaterako. Hala eta guztiz atek ez dizkiogu inori ixten eta partikularren lanak ere jasotzen ditugu.

■ **Aretxagazetako maketa aldatzeko orduan zer izan duzu kontuan?**

■ Zuek irudia aldatzeko eskatu zenidaten eta lehen baino modernoagoa den zerbait egin nahi izan dut. Horretarako letra aldatu eta

argazki haundiagoak sartu ditut, sarritan jendeak argazkiari bakarrik begiratzen baitio, eta orokorrean, diseinu modernoago baten bila joan naiz. Modernoak, ordea, ez du esan nahi gazteei bakarrik gustatu behar zaienik, jende guztiaren gogoko den zerbait egin nahi izan da.

■ **Etorkizunera begira zer?**

■ Ez dugu etorkizunean pentsatzen, egunero-egunero lan egin eta aurrera. Lana ondo eginez gero enpresa finkatzen eta hazten joango da. Hori bai, beti gaur daukagun lan giroa mantenduz. Etorkizuna internetean dago eta gu ere ezingo gara maketazio eta diseinuan bakarrik geratu. Bi-hiru urte barru, multimedia zerbitzua eskeintzen hasi beharko gara seguru asko. Key talde barruan beste sail bat izango da.



# Altxor bat

Aniztasuna, barietatea. Kontzeptu bat? Natura anitza da, definizioz. Milaka izaki bezain desberdinek ematen diote osotasuna eta izaera. Ezin uler daiteke natura aniztasunik gabe.

Kronologikoki, naturaren historiaren iruditat haritz urtetsu mardul bat haritzen badugu, gizakia, arbatxo batean zintzilik dagoen ezkurtxoa besterik ezta. Ba ezkurtxo horrek, bere ttikitasunean, izatez dagokion bezala loratu eta haritz gazte bat bihurtu eta zikloari jarraipena eman beharrean, berak zikloaren eskema aldatuko omen du, eta beragandik jaioko den hariztiak ez omen du harbarik edukiko, enbor trinko eta lerdengoa edukitze aldera, antza. Ai, ezkur gizarajoa. Harbarik gabe emango al du, bada, hezkurrik? Harbarik gabe bere burua suntsitzera doa, hariztiaren biziarekin batera. Kontestu hontan kokatzen dut aniztasuna, edo kasik hobe, aniztasun gabezia. Aspektu guztietan ari gara harbak mozten. Kupidarik gabe.

Hurrunago joan gabe, Euskal Herriaren arazo politikoaren sorburua bera ere, hau da, burujabetza nahi dugun ala ez guk geuk erabaki ahal izatearen galerazpena, aniztasunaren aurkako atentatu garrantz bat da, beste gauza askoren artean.



Milaka urtetako lurrarekiko lotura estuak dakarren jakintzak zizelatutako nor-tasun eta bizikera bat, Euskaldunona, ahortzi nahi dute, zentralizatzeko eta irensteko grina gaixo hortan. Ez al dauzka kultura bakoitzak ehunkada ñabardura ttiki, gizatasuna eta honen historia, bere erara (berdinik gabea) definitzen dutenak? Ba gaur egun, urtero dozenaka hizkuntza desagertzen dira, betirako. Hizkuntza diogunean kultura diogu, bista da. Ehundaka urtetatik gaurdaino dakargun kolonizatorako grina itsu horrek suntsitu ditu gizateriaren altxor guzti hauek, eta gaur egun kapitalismoak hartu dio erreleboa, kolonizazio mozorrotuxeago bati bide emanez bere oinarrizko dinamikarekin: irentsia izan edo irentsi! Eta kontsumismoa sartu xiringaz, ordurarte horrelakorik gabe ederki asko funtzionatu duten gizarteei. Iadanik estatuak baino indartsuago diren multinazionalek txikiak jan. Irentsi, zentralizatu globalizatu, zabaldu, gainezarri. Gizenak gizendu, argalak janez. Laster gizenak bakarrik izango dira. Adio gure aniztasuna.

Naturara bueltatuz, guztiok dakigu urtero ehundaka bizi forma bakar (espezie) galtzen direla, berriz bueltatuko ez direnak.

Lazoa estutuaz doa, eta aniztasuna murriztuz. Zer egin hau gelditzeko? Hasteko, arazoaz eta bere garrantziaz ohartu.

Dena dela, Naturak ziklikoki funtzionatzen du, eta baditu bere defentsak. Agian gu geu gara XX. mendeko dinosaurusak.

Oier SARASUA



- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 943 79 29 26

## Dorleta taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8  
☎ 943 79 94 15


## Jauregi Okindegia

Otalora, 10  
Tel.: 943 79 57 47  
Aretxabaleta

**HAURRAK**  
Umeendako  
moda

Lezama merkatal  
zentrua, 15  
943 77 14 86  
**ARETXABAleta**





*Lanean hasi den ikasleak askatasun ekonomikoa nahi du. Ikasten hasi den langileak, berriz, aberastasun pertsonala*

# Langile eta ikasle finak

***Otsaila azterketa garaia da Unibertsitatean. Gabon ostean hasi eta otsaila erdi ingurua pasatu arte urduritasuna izaten da nagusi ikasleengan. Ikasteko denbora falta, ikasitakoa buruan ezin gorde... kirioak aidean denek. Ikastea bakarrik gutxi balitz, ikasteaz gain lanean ari denik ere bada gure artean. Nola moldatzen ote dira hauek? Horixe ezagutu nahi izan dugu.***

Otsaila eta ekaina hilabete beldurgarriak dira ikasleentzat. Azterketa garaia da. Gauetan berandu arte ikasten geratu behar, aste bukaeretan ezin atera lagunekin, nahi eta ezin kontzentratu ikasteko... Urte guztian zehar ikasketak fin-fin eramanez gero zerbait, baina azkenengo egu-

netarako utzi bada... ez dago bueltarik! Ikasle gehientsuenen lana, ordea, horixe da, ikastea, beraz, ez da harrizkekoa ganorazko zerbait egin dezatela eskatzea etxean. Badaude gure artean ikasteaz gain beste lan bat dutenak. Hauek ikasle langileak dira. Edo agian, langile ikasleak.

Dena delako izena izanda ere ez daukate lan erreza.

Hamazortzi urteko gazteak edo berrogehi urteko gizon helduak, inoiz ez da ikasten hasteko beranduegi, ezta lanean hasteko goizegi ere. Lanean hasi den ikasleak askatasun ekonomikoa nahi du. Ikasten hasi den langileak berriz, abe-

rastasun pertsonala, gerora begira lanpostu hobea. Esatea, erreza da baina egunero-egunero bai lana bai ikasketak aurrera ateratzea, ez da meritu makala. Bi hauei gainera emaztea, nobioa, lagunak... gaineratu behar zaizkie, denek nahi izaten baitute euren dedikazioa.



## Eneritz Urrutia

Loramendi E.E.n lanean eta Euskal Filologia ikasten

**“Bi karrerak nituen gogoko majisteritza eta euskal filologia, beraz, gehien gustatzen zitzaidanetik hasi nintzen. Orain bigarrenari tokatzen zaio”**

23 urte ditu eta Loramendi Euskara Elkartean lanean hasi zela bi urte izango dira udaberriari. Orduan majisteritza ikasten ari zen. 1992ko irailean, berriz, Euskal Filologiako ikasketekin hasia erabaki zuen. “Bi karrerak nituen gogoko majisteritza eta euskal filologia, beraz, gehien gustatzen zitzaidanetik hasi nintzen. Orain bigarrenari tokatzen zaio”. Goizero-goizero joaten da Gasteizera klaseetara, arratsaldetan, berriz, Loramendira lanera. Klaseetan oso gustora aurkitzen da, giro polita baitago, nahiz eta bost urte gazteagoak izan beste ikasleak.

“Egun batzuk oso gogorrak dira baina okerrena azterketa garaia da”. Egun haueetan apunteak gora eta

behera dabil ditxosozko azterketekin. Lau urteko karrera, lau urtean amaitzea gustatuko litzaioke baina “ikusiko da...”

## Aitor Antxia Leturia

Irakaslea San Frantzisko Xabierren eta Humanitateak eta Enpresa ikasten

**“Ikastera bueltatzea pozgarria izan da, neuronek oraindik funtzionatzen dutela ikusi baitut. Baina erantzunkizun haundia ere bada”**

Nork ez du ezagutzen Aitor Antxia... alkate ere izan genuen eta. Orain ordea, karrera ateratzeko asmoz ikasten hasi da, Humanitateak eta Enpresa hain zuzen. Aurretik majisteritza egina zuelako iazko

kurtsoa “pasarela kurtsoa” izan zen eta aurten jadanik 3. mailan dago. Ekonomia mundua betidanik gustatu izan zaio eta lehen ere ekonomia inguruko ikasketa batzuk eginak ditu. Ekonomia giza zientziekin lotzea oso interesgarria iruditut zitzaien eta enpresa munduari pintzelada batzuk emango liokela karrera honek pentsatuta hasi zen ikasten. “Ikastera bueltatzea pozgarria izan da, neuronek oraindik funtzionatzen dutela ikusi baitut. Baina erantzunkizun haundia ere bada, batek egun erdi lan egitea eskatu dudalako eta beste, diru asko inbertitu dudalako”. Egunero joaten da klaseetara eta jende gaztearekin oso ondo konpontzen dela dio. Irakasleekin ere ez du arazorik baina


isilpean aitortu duenez, batzuetan gustora egingo lizkieke hainbat zuzenketa. Ikastea eta lana aurrera ateratzeak ez dio berebiziko buruhausterik ematen “organizatzea da dena” eta halaxe izan beharko da, ingelesa ikasten ere badabil eta. Bere gustoko lanek ere badaukate txokotxoia Aitorren agenda lanpetuan. Zapatu goiz guztietan Donostiara, diozesiko artxibora, joaten da gure herri eta auzoetako elizetako datuak bilatu eta pilotzera, nork daki zertarako... “Gogorrena ikastea da, egun bost ordu pasatzen ditut klasean eta beste ordu bete ingelesa ikasten”. Izen potolodun karrera hau amaitzean Aitorrek ez dauka beste lanpostu baten bila hasteko asmorik, bere esanetan oso gustora baitago irakaskuntzan.

## “Egun batzuk oso gogorrak dira baina okerrena azterketa garaia da”

## Maier Etxebarria

Fisioterapeuta lanetan eta Osteopatia eta Pediatriako postgraduatu ateratzen

**“Oso gustora nabil bai lanean eta bai ikasten. Lanean, ordutegia, ikasle- en beharretara egokitzen**





### dut. Ikasten berriz, ez daukat azterketen presiorik”

Maierek Fisioterapia karrerara Zaragozan ikasi ostean hezkuntzan hasi zen lanean. Arazo fisikoak dituzten umeeekin egiten du lan Bizkaiko hainbat eskolatan, Amurrio eta Laudion hain zuzen. Lanean oso gustora badabil ere ikastea du gogoko eta horrek bultzatu zuen Osteopatia eta Pediatriako postgraduatuak egitera.

Osteopatia ikasten iaz hasi zen Madrilen eta hilean behin eguenetik domekara bitartean joaten da klaseetara. Pediatria egiten, berriz, aurten hasi da Bilbon eta hau ere hilean behin izaten du, eguakotxetik domekara. “Oso gustora nabil bai lanean eta bai ikasten. Lanean, ordutegia, ikasleen beharretara egokitzen dut. Ikasten berriz, ez daukat azterketen presiorik, nahiz eta bat edo beste izan, eta praktikak, lanean aritzeak, ere asko laguntzen dit”. Argi dauka ikasketa hauek lana hobeto egiten lagunduko diotela, espezializazioa lortuz, baina “hau ez balitz beste zerbait ikasiko nuke, ikasteak gauza berrien eta kulturaren eza-gutza suposatzen baitu”.

lanean ari zen Arlutzen egun batzuk egin ostean. “Lanak askatasun ekonomikoa dakar. Hemen, gainera, jende asko ezagutu daiteke eta oso gustora nabil. Sarritan gustorago barra barruan kanpoan baino”.

Lana gustoko badu ere ikasketak ez ditu ahaztu. Laneko ordutegia, klaseei trabarik ez egiteko moldatua dauka. Azterketa garaian, berriz, jai ere hartzen du. Almenen falta zaion kurtsoa amaitu ostean, hizkuntzekin zerikusia daukan karrera ikasi nahi du “Turis-

mo edo idazkaritza, ez dakit. Suitzan oper gisa egon nintzen urte batean eta oso esperientzia polita izan zen”. Amak, lanik egin beharrik ez daukala argi utzi dio, baina Mireiak gustoko du lana eta gustora dagoen bitartean aurrera.

### Jon Iñaki Izarzelai

Leintz-Gainen lan egiteaz gain Antropologia ikasten



**“Hau ez balitz beste zerbait ikasiko nuke, ikasteak gauza berrien eta kulturaren ezagutza suposatzen baitu”**

### Klaseetara buelta beti da aberasgarria, baina orain gauza gehiagorekin konturatu eta kritikoagoa naiz”.

32 urteko mutil honek Galartzan, Almenekoez duten Leintz-Gain etxean lan egiten du. Aurretik majisteritza eta nekazal maestria ditu eginak baina gustora geratu ez eta aurtengo kurtsoan Antropologia ikasten hasi da. “Antropologia, oso gaitetik azalduta, gizakia eta kulturaren azterketa da eta aspektu ezberdinak lantzen dira bertan: arkeologia, linguistika...”

Leintz-Gain etxean zortzi ordu pasatzen ditu, 3-16 urte bitarteko gaztetxoentzat tailer eta aktibitateak antolatzen. Astean bi goiz, berriz, ikasteko hartzen ditu. “Ahal den klaseetara Donostiara joaten naiz eta bestela apunteak eskatzen ditut”. Antropologia 2. zikloko karrera da, hau da, beste ikasketa batzuk egin ostean, majisteritza esaterako, egiten dena. Lehenengo urte honetan, ez dabiltzala espero zuen gutzia egiten aitortu du, aurreantzean ikusi behar. “Klaseetara buelta beti da aberasgarria, baina orain gauza gehiagorekin konturatu eta kritikoagoa naiz”. Egun hauetan azterketekin ibili da eta aste bukaera batzuk sakrifikatu behar izan ditu horretarako. “Ikasteko behar den kontzentrazioa lortzea gogorra da. Disziplina ere behar beharrezkoa da, bestela lanak piltzen joaten baitira eta azkenean zezenak harrapatzen gaitu”. Ikasketak bukatzean, berriz, ez dauka inolako helbururik, gogoia asezteko besterik ez baitu hasi karrera hau. “Bizitza, beti ikasten pasatu behar da”.

### Mireia Frutos

Ezkutuko zerbitzaria eta Logseko 2. mailako ikaslea

### nago barra barruan kanpoan baino”

Mireiak 18 urte ditu eta Almenen, Logseko 2. mailako giza zientziak egiten ari da. Iaz, Eskoriatzako jaientan, San Pedrotan, lagun baten tabernan hasi zen lanean. Lana gustatu eta urrian jadanik, Ezkutun





Txirrindularitza

Dorletako Ama txirrindulari eskolak 2000-2001 denboraldiko aurkezpena egingo du otsailaren 19an. Urtero bezala goizeko 10,30ean Dorletako Ama Birgina txirrindularien zaindariari lore eskaintza egingo zaio Dorletako Santutegian. Ondoren 11:30ak aldera txirrindularien eta hauen laguntzaileen aurkezpen ekitaldia izango da Hotel Mondragonen. Ekitaldiaz bukatzeko, luntxa izango da bertara hurbiltzen diren guztientzat.




Pala

Kiroletxeak binakako pala txapelketa antolatu du otsailaren 20tik hasi eta apirilaren 15era bitartean. Deba Garaiko pilotalekuetan gomazko paletan jokatzen duten guztiei zuzenduta dago aipatutako txapelketa. Izena eman nahi izanez gero kiroletxean bertan egin daiteke edo eta 943 79 64 61 telefonora deituta datorren otsailaren 15a baino lehen. Txapelketa hau Deba Garaiko txapelketa zirkuitorako puntuagarria da.



Futbitoa

Arlutz futbito txapelketa bere 14. ihardunaldira iritsi da. Momentu honetan peña Hugo taldea doa sailkapenean lehenengo postuan 35 punturekin. 2. DDK (30 p.); 3. Kemen (27 p.); 4. Toblerone (27 p.); 5. Garaje Pepe (23 p.); 6. MCM (22 p.); 7. Yugo (18 p.); 8. TPM (11 p.); 9. Escudron (7 p.) eta Ondanadas azken postuan. Sailkapena horrela badago ere, oraindik bi hilabete gelditzen dira bukatzeko eta edozer gauza gerta daiteke.



Xakea

Herriko bi xake taldeek datorren asteburuan amaituko dute liga. Arlutz A taldeak Gasteizko San Viatorren aurka neurtuko ditu indarrak ligako azken partidaren. Taldeak puntu eta erdiko puntuazioa behar du Euskal ligan mantentzeko eta Aitor Alcaidek adierazi digunez, ez lukete arazorik izan behar hori lortzeko. Arlutz Bk, berriz, 3. mailara jaisteko promozioa jokatuko du asteburuan Fortuna taldearen aurka. 3-1 irabazi beharko dute berdintzeko.

*Kirol mundua eta publizitate-arena beti izan ditu gustuko Manolo Zubillagak eta Asegarcen lan egiteko aukera izan zuenean, ez zuen aukera alperrik galtzen utzi. Hasiera hartatik hamar urte pasatu dira eta Manolok enpresaren nondik-norakoak azaldu dizkigu.*

■ **Manolo, zein da zure lana Asegarcen?**

■ Publizitate arduraduna naiz. Asegarcen dituen programa guztientzat publizitatea bilatzea da nire egin-beharrekoa, horien artean, Argiñano, Bricomanía, pilota... Programa guzti hauen-gatik lortu dugu pilota aurrera ateratzea; hasierako urteetan defizitarioa baitzen.

■ **Baina azken urteotan pilotak salto handia eman du. Oraindik defizitarioa izaten jarraitzen du?**

■ Ez, gaur egun ez. Orain hiru bat urte ekin ginen publizitateari esker burua altxatzen.

■ **Milurte berria nola hasi du Asegarcen pilotari dagokionean?**

■ Oso ondo. 2000. urtea oso ona izango dela uste dut, izan ere publizitateari dago-

kionean, hiru-lau etxe garrantzitsu lortu ditugu.

■ **Beraz, publizitatea diruturri ezinbestekoa da.**

■ Bai, hala da. Gure programa guztietan publizitatea lantzen dugu eta horri esker bizi gara.

■ **Pilotaren indartze honetan zein izan da telebistaren eragina?**

■ Telebistak izan du bere eragina, hori egia da, baina nire ustez pilotak hartu duen garrantzia Asegarcen esker izan da. Pilotaria profesionalizatu egin da, benetako kirolaria bihurtuz; soldata eta baldintza duin batzuekin.

■ **Atrebentzia handia ez bada, zenbat kobratzen du Asegarcen pilotari batek?**

■ Gutxienez hiru milioi gora eta gehien irabaziko dutenak, 35-40 milioi inguru.

■ **Aspe enpresa sortzeak, zer suposatzen du Asegarcen?**

■ Enpresa hau diru publikoaz sortu zen eta hori ez zuen batera ondo ikusi Asegarcen.

Asegarcen ez dago beste enpresa bat sortzearen kontra, baina Asperen sorrera kritikatzeko du, diru publikoaz sortu baitzen. Bestalde, gaur egun erlazio ona mantentzen dugu.

■ **Laster Arrasateko Uarkape pilotalekuan profesionalen partidari ikusteko aukerarik izango dugu?**

■ Aurreko astean izan genuen batzarra Arrasateko arduradunekin, eta seguruenik hemendik eta San Juanetara bitartean profesionalen pare bat partida antolatu dira. Oraindik ez dakigu Arrasateko pilotalekuak zenbateko ikuslegoa izango duen. Kontuan izan, frontoi bat errentagarria izateko, pilota partiduko 300 bat lagun joan beharko lirakeela.

■ **Profesionaltara igotzeko nafarra edo errioxarra izan behar dela esaten da.**


■ Nafarroa eta Errioxatik egia da pilotari onak atera direla, baina bertan ere pilotari trebeak sortu dira. Hiru ikus-

katzaile daude Asegarcen eta beraiek arduratzen dira etorkizuna izan dezaketen pilotariak aukeratzen.

■ **Bat aukeratzekotan, zu zeu zeinekin geldituko zinateke?**

■ Gaur egun oso ondo gertatutako pilotariak daude, kirolari bikainak direnak, duda barik. Alustiza, Segurakoa, pilotaririk onenetakoa da nire iritziz. Zearra ere oso indartsu dago.

## Manolo Zubillaga Asegarcen publizitate arduraduna







Seigarren postuan kokatu da Udako talde nagusia azken bi ihardunaldiak irabazi ondoren

## Preferentea goranzko joeran

Berri pozgarriak eman dizki-gu Udak azken bi ihardunaldietan. Iñaki Ceciagaren mutilek emaitza positiboak lortu dituzte eta sailkapenean seigarren lekua hartu du te.

Azken ihardunaldia etxetik kanpo jokatu zuen Udako talde nagusiak, emaitza Mundarrok 0 Udak 1 izan zen. Ceciagaren mutilak azkar aurreratu ziren markagailuan Jon Ander Larrinagaren golari esker. Golaren ondoren Mundarrok hainbat aukera izan zituen baina jokaldia ondo bukatzen ez zuten asmatu. Beraz, bukaeran Uda garaipenarekin buel-

tatu zen etxera. Datorren ihardunaldian Preferentek osterera ere kanpoan jokatu du kasu honetan Hondarribian.

### Gainontzeko taldeak

Futboleko gainontzeko taldeen emaitzak ere ezagutuko ditugu gaurkoan. Armentiak entrenatzen duen lehen erreionalak berdinetaz amaitu zuen azken ihardunaldian Soraluze taldearen aurka. Partiduan ez zen golik egon.

Sailkapenari dagokionez 13. postua betetzen du lehen erreionalak. Loiolako izango du hurrengo aurkaria etxean. Taldeak emaitza po-

sitiboak beharrezkoak ditu, 13. postu horretatik igotzeko.

Euskal Ligako jubenilek sailkapenean lehen doan Alavesen aurka ez zuten irabazterik izan eta 1-0 galdu zuten. Datorren asteburuan Loyola Indautxu hartuko dute etxean jubenilek.

Uda-Almen lehen mailako jubenil taldeak 1-3 galdu zuen Bergararen aurka. Bigarren mailakoek ere ezin izan zioten Amarozi irabazi. Lehen mailako kadeteek eta Anaitasunak, berriz, bina berdindu zuten, eta azkenik, infantilek 3-0 galdu zuten Villabonaren aurka.

## DEBA GARAICO KIROL TXAPELKETA ZIRKUITOA

Aurtengoa Deba Garaiko kirol txapelketa zirkuitoan lau kirol sartuko dira: pala, frontenisa, tenisa, eta squasha. Aretxabaletari dagokionez, pala, squasha eta frontenisa jokatzeko aukera izango da. Pala txapelketa otsailaren 20an hasi eta apirilaren erdialdera arte luzatuko da. Hurrengo squashak hartuko du lekua. Kirol hau maiatza eta uztaila bitarteko hileetan jokatu da. Azkenik, frontenisak iraila eta azaroa hilabeteak hartuko ditu. Pala eta frontenisa jokatzeko bikotea behar izango da eta tenisa eta squasha, berriz, banaka jokatu dira.

## IBAN SASTRE DENBORALDIA HASTEKO GERTU

Txirrundulari denboraldia hasteaz bat, Iban Sastre gertu daukagu profesionaletan bere debuta egiteko. Aurtengo hau profesionaltako lehen urtea izango da 22 urteko atxabaltarrarentzat. Luis Fernándezen Festina taldearekin han eta hemen arituko da txirrundulari gaztea eta lehenbailehen maila berrira moldatzea izango du erronka nagusietako bat. Gure aldetik zorterik onena opa diogu.

Herriko  
plazan  
ARTANO

*Girorik onena*

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

ARBULO  
HARATEGIA

Santa Kurtz, 5  
Tel.: 943 79 02 24  
ARETXABALETA



BAZTER-ALDE  
JATETXEA

SASOIKO  
JAKIAK  
GIRO  
ONENEAN

Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETA



## Denetik

Nintendo 64 salgai. Honez gain, mandoa eta hiru joku ditu: Super Mario 64, Goldeneye eta V-Rally 99. Prezioa 18.000 ppta. Tel.: 943 79 88 53, Mikel.

Cocker arrazako txakurkumeak salgai. Pedigriarekin. Tel.: 696 057 346.

Txakurra eramateko erremolke berri berria salgai. Deitu 943 77 05 75 telefonora.

Kanpindenda kanadiensea eta kotxe gainean eramateko PVCzko kaxa salgai. Tel.: 943 79 23 69.

Kawasaki GPC 400 salgai, egoera onean. Tel.: 943 73 18 72 edo 73 12 82.

Txahalak salgai kongeladoran sartzeko. Labeldunak eta natural hasita. Bildotsak ere bai. Tel.: 689541861.

Trialeko motorra salgai. Gas-gas. 250 cc. 91. urtekoa. Motorreko botak oparitzen ditut, 41 zenbakia. Prezioa momentuan adostuko da. Tel.: 943 79 78 36.

Piragua salgai. Whip, it.

## Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura.**

## Etxebizitza

Arraunekin, "cubrebañeraS" eta bi glogorekin. 130.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

Abeslari bila gabiltza musika taldea osatzeko. Metal musika Samplerekin nahasten dugu. Gure eraginak talde hauek dira: Fear Factory, Ktululu, Slayer... Interesatzen bazaizu deitu konpromesurik gabe: Igor 677074821/ Yosu 636253023.

Prentsa saltzen duen denda alokagai edo salgai Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 20.

Garaje ederra alokagai Otalora kalean. Tel.: 943 79 47 62.

Pisua alokatuko genuke Aretxabaletan. Deitu Ibarra tabernara. Tel.: 943 79 69 86. (Vicen).

Aretxabaleta edo Arrasaten langile batek gela bat behar du bizitzeko. Tel.: 607 798 723.

57 m<sup>2</sup>ko garajea salgai Errekabarren kalean. Tel.: 943 79 74 73.

Etxea erosi nahi da Aretxabaletan. Tel.: 943 79 61 68.

Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan. Tel.: 649 16 86 69.

Garaje bat erosi nahi genuke Eskoriatzan, Olaeta edo Aingeru Ibiltokia kale inguruetan. Tel.: 943 79 75 80/715266.

Jose Mari Bodegoia saltzen edo alokatzen da. Tel.: 943 79 20 45.

Etxebizitza salgai dago Aretxabaletan, 100 m<sup>2</sup> eraikiak, 85 m<sup>2</sup> erabilgarriak, ganbararekin. Laugarren pisua, etxe guztiak kalera ematen du. Gas naturaleko bero-gailuaz. Tel.: 943 77 18 33 edo 943 77 11 76.

Pertsona bat behar da pisu bat osatzeko. Tel.: 943 77 03 36 (Ainhoa).

Hiru-lau langilek pisu bat behar dugu alokairuan hartzeko. Jatorrak gara eta etxea ondo zainduko dugu. Tel.: 943 77 03 36 (Ainhoa).

## ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

• JUANTXO URDAITEGIA	943 79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	943 79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	943 79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	943 79 31 59
• LEINTZ-ROSI	943 79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	943 79 96 43



**Lana**

Estetizista behar da.  
Tel.: 943 79 94 39.

Gaztea behar da tabernan  
orduka lan egiteko.  
Ikasleentzat lan egokia.  
Tel.: 656 721 482.

2. LOGSEko zientzietako  
ikasle batek kimika eta  
historiako klase partikula-  
rrak hartuko lituzke.  
Tel.: 666 725 332.

Neska prest zapatu eta  
domeketan lan egiteko.  
Tel.: 943 79 03 37.

Ingeleseko klase partikula-  
rrak ematen dira. Maila  
guztiak.  
Tel.: 943 77 08 69.

Catalana Occidente asegu-  
ru etxeak agente komertzi-  
lak behar ditu.  
Interesatuok ondorengo  
telefono zenbakietara  
zuzendu zaitezke.  
943 429212/670431395/  
900180228

Pertsona bat behar da  
taberna batean zerbitzari  
lanak egiteko astebukaere-  
tan. Tel.: 943 79 02 25.


**Lan deialdi publikoak**

Suhiltzaileak, 19 lanpos-  
tu.  
Aurkezteko epea: BOEn  
argitaratu eta hurrengo  
20 laneguneko epean.  
Baldintzak: graduatua,  
gidatzeko baimena B-C,  
lehen hizkuntza eskaki-  
zuna.

Errenteriko Udalak bi  
musika irakasle behar  
ditu. Dantza espezialita-  
tea.

Aurkezteko epea: BOEn  
argitaratu eta hurrengo  
20 laneguneko epean.

Zumarragako Udalak eus-  
kara teknikaria, sare erre-  
gistroko arduraduna eta  
peoi lorezaina behar ditu.  
Oinarriak: GAOn argitara-  
tzeko zain.

**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**BI PEOI.** Deba Goiena.  
Erref: 28715/2

**INFORMATIKAKO MAIXUA (Ofimatika, Outlook, Windows  
Nt, visual basic).** Gasteiz.  
Erref: 28519/2

**DELINEATZAILE INDUSTRIALA.** Deba Behea.  
Erref: 28391/6

**SOLDADURA IRAKASLEA.** Deba Goiena.  
Erref: 27382/5

**BI KABLEATZAILE.** Gasteiz.  
Erref: 27682/4

**KOMERTZIALA.** Arabako lautada.  
Erref: 28040/2

**MEKANIZATUKO LANGILEA.** Elorrio.  
Erref: 27932/2

**EBALUAZIO TEKNIKARIA.** Egailan S.A.  
Erref: 28103/

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo  
telefonoetara dei daiteke:

Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33

Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90

Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00


**AMETS  
TABERNA**

Iparragirre, 4  
Tel.: 943 79 01 29  
Aretxabaleta

**G U R E A**

*taberna  
jatetxea*

Durana kalea  
Tel.: 943 79 20 64



Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tel.: 943 799201

**AZKARATE  
AROSZEGIA**

Tailerra: Mahasterreka, 18  
BERGARA  
943 76 47 19

ARETXABAleta  
943 77 01 24

**T  
X  
i  
L  
A  
R  
R  
A****ELIKADURA  
BEREZIA**

Durana, 35  
Tel.: 943 79 10 15

Loramendi, 9  
Tel.: 943 79 44 28  
ARETXABAleta



*Eibartarra da sortzez. Gaztetan andereino edo salmahai atzean imaginatzen zuen bere burua, eta egia esan, horren urruti ere ez dabil. Gaur egun Urkiola argazki dendan egiten du lan. Mometuz, gustura dagoela esan digu Mari Luz Hernándezek.*

## Mari Luz Hernández

### "Gaztetan denda batean lanean imaginatzen nuen neure burua"



#### ■ Eibartarra izanda, nolatan Aretxabaletan?

■ Mutilak errekadista lanak egiten zituen Urkiola dendarako, eta eurak utzi egin behar zutela eta, geuk hartu genuen.

#### ■ Ezagutzen zenuen Aretxabaleta?

■ Bai, nire aizpa Arrasaten bizi da eta etorrita negoen lehenago ere.

#### ■ Eta argazki mundua ezagutzen zenuen?

Egia esan ikastaro bat eginda neukan. Horrez gain, dendako lanari dagokionean, lehenago ere beste mota bateko dendetan aritua naiz.

#### ■ Eta nola moldatu zara lan berrira?

■ Nahiko ondo. Herriko bezeroek ondo hartu naute eta horrek asko laguntzen du. Orain argazki munduari buruzko gaiak ikasten ari naiz neure kontu.

#### ■ Zer kostatu zaizu gehien?

■ Argazkiari dagokionez, montajeak egitea.

#### ■ Dendari batek zein ezaugarri izan behar ditu?

■ Lehenik eta behin atsegina izan behar du. Zer esanik ez, bezeroen beharrak asetzea oso garrantzitsua da.

#### ■ Nolako argazkiak ateratzea gustatzen zaizu?

■ Txuri-beltzeko argazkiak, beste txispa bat daukate.

#### ■ Kamara digitala, manuala edo automatikoa?

■ Eman nahi zaion erabileraren arabera dago hori. Digitala nik ez dut asko ezagutzen. Manuala efektu bereziak lortu nahi izanez gero erabiltzen dut, eta azkenik, egunerokotasunean erabiltzeko automatikoa onena.

#### ■ Kamara digitalak zein erantzun izan du merkatuan?

■ Oraindik ez dut uste arrakasta haundirik izan duenik. Lanbide konkretu batzuetarako erabilia da, baina bezero arrunten artean ez du arrakasta haundirik izan.

#### ■ Nori aterako zenioke argazki bat?

■ Modelo bati adibidez.

#### ■ Zu zeu fotogenikoa zara?

■ Baietz esaten didate. Nire iritziz batzuetan ondo irtetzen dut, baina hurrengoan, berriz, ez.

#### ■ Gaztetan zeure burua argazki denda batean ikusten zenuen?

■ Andereino edo bestela salmahai baten atzean imaginatzen nuen neure burua. Beraz, antzeko zeozer bai.

#### ■ Euskaldun berria zaitugu. Zaila izan da euskara ikastea?

■ Ez, beti erraztasuna izan dut hizkuntzetarako. Euskaltegira joateko aukera izan nuenetik, hasi nintzen ikasten. Gurasoak Extremadurakoak ditut. Dena dela, nire iritziz, herri bateko kulturen integratzeko bertako hizkuntza ikasi beharra dago. Gainera, horrek pertsona asko aberasten du.

## IBARRA

### ESTANKOA



Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77

*Ofindegia - Gozotegia*

## Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta


Bertako okina



Lurrindegia  
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59





## "Zorion etxe hontako denoi..."

"Zorion" herri hontako denoi, oles egitera nator, aterik ate ohitura zaharrrak aurten berritzeko asmoz..." eta horrela izan dadila 3.000 efektuarekin batera ere. Dena dela, oraingo neskak ez ei dute gatzik. Erredio!... Ez zaitzete txepelak izan eta ez iezaiezue horrelako aukerei alde egiten utzi, gero beranduegi izango da eta. "Por experiencia" diotsuet. Gainera orain, traguek balio dutena baliota... Hau ere ohituratzat hartua dute tabernariak, baina ez dut uste aurrekoa bezala, denon zorionerako izango denik.

Ohituretatik ospera. Ospe-tsu asko ditugula Atxabaltan! Alde batetik, Txirri, Mirri eta Txirribitonon Barrebusean, ederki asko defendatu ziren Atxabaltako amatxoak. Harro ego-teko moduan daude hauen seme-alabak, baina nori egingo ote zion Urdai-baiko asteburuak ilusio gehiago, Bixeni ala aita-txori?

Eta Lore? Duela hilabete inguru azaldu zen gure aldizkarian, eta hemendik salto batez ETBraino "Gara" egunkariaren anuntzio batera. Jakin dezatela

ETBkoek gurekin hasi zela, eh? Hala ere, txoritxo batek esan dit, Lorek, gatzetatik dituela aktore dote hauek. A ze zorzea!

Telebistarekin jarraituz, argi dago, ospetsu ugari dituen herria izateaz aparte, Atxabalta bera ere ospetsua dela. Askok diote Goenkale, pixkat Gogaikarri izaten ere hasia dela. Baina nork ez du ikusten? Ez didazu esango, pasa den urtarrilaren 28an ez zenuela gure hondartza, Urkulu alegia, telesail honetan ikusi?

Zoritxarrez, Kepa Urrak, behintzat, ez zuen ikusiko. Sarritan horrelako txutxumutxu simple bat nahikoa da, bere ezpainetan irrifarre bat sortzeko. Ez da momenturik txarrena gainera, otsailaren 13an bere urtebetetze eguna da eta. Ea nork idazten dion dedikatoriarik politena!! Ah! baina otsailak 4ean, Madrilen bost ordutan zehar bueltaka ibili ondoren, Alcalá Mecora eraman zuten, inolako arrazoirik eman gabe.

Horretan gelditzen gara, beraz, aste honetako gure konpromezua, Kepari eskutitztoa eta 81ean jaiotakoak, zeuen kinttoekin plazara!!!

*M. J. Arzak*

## Liburu berrien zerrenda

### 0 urtetik aurrera

- Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satorra/Werner Holzwarth
- Nola dastatu ilargia? / Grejnlec

### 6 urtetik aurrera

- Elmer sobre zancos/David McKee
- Por el hilo se saca el ovillo/Satoshi Kitamura

### 8 urtetik aurrera

- Zupankapaloak/Pello Añorga

### 12 urtetik aurrera

- Zeruak erori zirenekoa/Joanes Urkixo
- Liburutegiko lehiaren misterioa/Margaret Oliphant
- La leyenda de Sleepy Hollow/Washington Irving

### 14 urtetik aurrera

- Gerturik daukagu odola/Joxean Sagastizabal
- Margolana/Igor Elortza

### Nobelak

- Las torres de Sancho/Toto Martínez de Lezea
- Ella, maldita alma/Manuel Rivas
- El largo camino a casa/Danielle Steel
- El corazón de las tinieblas/Joseph Conrad
- El amante lesbiano/José Luis Sampedro

### Kontsulta liburuak

- Txorakeriak 2/Kike Amonarriz
- La tira en un año/Tasio
- Manual de solidarios/Eva Forest
- Sobre el origen de los vascos/Xabier Peñalver

### Liburuak ingelesez

- Frankenstein/Mary Shelley
- Lord Jim/Joseph Conrad
- The secret garden/Frances Hodgson Burnett
- Dead man's island/John Escott

Joseba Lopez de Armentia

## DISKAK



Idiazabalen jaiotako solista hau gaur egun Gasteizen bizi da. Bere abestiak sentimentuz betetakoak dira, eta kanten letrak, berriz, oso intimistak. "Deklarazioa" deitzen den albumak ez dakar aparteko berrikuntzarik musikaren alorrean, hala ere, Mikel Telleria hamabi abesti atseginekin

azaltzen zaigu diska berri honetan. Besteak beste, "Desioarena", "Deklarazioa", "Zuregana itzultzean" eta "Eskatu dena guztia" bezalako kanten betetzen dute idiazabaltar honen lehenengo diska. Duda barik, tabernetan zuzenean entzuteko moduko musika atsegina dugu.



**OTSAILA**

**11 EGUAKOTXA**

■ **KONTZENTRAZIOA**

Baterak deiturik kontzentrazioa egingo da udaletxe aurrean arratsaldeko 7etan.

**13 DOMEKA**

■ **SANTA AGEDA MUTILEN DANTZA SAIOA** Santa Ageda mutilek dantza saioa eskeiniko dute herriko plazan arratsaldeko 7etan.



**14 ASTELEHENA**

■ **ODOL EMATEA OSASUN ZENTRUAN**

Arratsaldeko 4retatik 8etara izango da.

**15 MARTIZENA**

■ **GAZTETXEAN ASANBLADA**

Gaztetxeko kideek martizenero izango dute gaztetxean asanblada arratsaldeko 7,30etatik aurrera.

**19 ZAPATUA**

■ **DORLETAKO AMATXIRRINDULARI ESKOLAREN AURKEZPENA**

Goizeko 10,30etan Dorletako Amari lore eskaintza egingo diote txirrindulariek. Ondoren, 11,30ean Hotel Mondragonen taldeen babesleak eta txirrindulariak aurkeztuko dira. Jarraian, 12etan luntxa izango da.

**20 DOMEKA**

■ **SANTA AGEDA MUTILEN DANTZA SAIOA**

Santa Ageda mutilek dantza saioa eskeiniko dute herriko plazan arratsaldeko 7etan.

**20 DOMEKA**


■ **ARLABAN-OTZAUURTE MENDI IRTEERA**

Zaraia Mendi Taldeak Gipuzkoako itzuliaren barruan Arlaban-Otzaurte ibilbidea egingo du.

**19-20**

■ **ESKI TRABESIA IRTEERA**

Murruxok Luz Sant Sauver ingurura mendi irteera antolatu du. Midi de Baigorri eta Tallón mendietara. Prezioa: 2.500 pta. Apuntatzeko Murruxotik pasatu asteartean 7:30etatik 8:30etara. Tel.: 943 79 93 74.



**IKASTAROAK**

■ **PANPINAK EGITEKO IKASTAROA**

Aretxabaleako kultur etxeak panpinak egiteko ikastaroa antolatu du. Oraindik egunak zehaztu barik dauden arren, interesaturik egonez gero, kultur etxera zuzendu daiteke, edo eta, 943 79 01 05 telefono zenbakira deitu.



■ **TXALAPARTA IKASTAROA**

Arrasateko Gazteria sailak txalaparta ikastaroa antolatu du, hastapen eta sakontze mailak. Otsailaren 11tik maiatzaren 13ra luzatuko da eta guztira 46 ordu izango dira. Ordu-tegiari dagokionez, ostiraletan arratsalde eta zapatu goizetan emango da. Ikastaroa Kike Dapena eta Aitor Garciak emango dute Musakolako saloian. Izen ematea Gazte bulegoan edo eta 943 77 00 65 telefono zenbakian egin daiteke. Matrikula 2.000 pta.



Mikel Arroiabe



## AGENDA

## Zorionak

Zorion agurrik argitaratu nahi baduzue, Aretxagazetara zuzendu, Durana, 11 edo 151 postakutxatilara bidali.



**Lurdes Etxebarria**  
Otsailak 11  
Mexikotik Saioa eta Aitorren partez eta beste txoritxo bat.



**Ramon Iturricastillo**  
Otsailak 11,  
Hogeita denak!  
Zorionak koadrilako zaharrenari (ez zaharrari).



**Kepa Urrea**  
Otsailak 13,  
Zorionak eta urte askotarako!  
Atxabaltako herria.



**Amaia Arana**  
Otsailak 14  
Amatxoren partetik belarrik tirakada haundi bat



**Pilar Arrese**  
Otsailak 15  
Zorionak zure loben partez.



**Gorka Iturbe**  
Otsailak 16  
Gero eta urte gehixau bizkarrrien eta... noiz ezkondu biaz? Hire lagunak.



**Iñaki Arana**  
Otsailak 16,  
Atxabaltako aita karinosaari zorionak, zure alabak.



**Gotzone Güemes**  
Otsailak 16,  
Noiz eta non izango da kafea? Zorionak! Zure lagunak.



**Agustin Morales**  
Otsailak 18,  
urte askotarako, etxeokoa!



**Isabel Gartziaetxabe**  
Otsailak 19,  
Zorion bero-beroak. Alabak.



**Myriam Beltran de Heredia**  
Otsailak 22,  
Senarrak eta semeak muxu haundi bat.

## Txistuak • Txaloak

Lehen ez zen batere leku erakargarria, baina gaur egun oraindik oso zikina dagoen Deba ibaia inguratzen duen pasealeku zoragarria bihurtu da. Loramendiko etxeen atzetik doan pasealeku berriaz berbetan ari naiz. Zoladura, jardinak, baranda eta argia; beste aldean kirol etxeko kirol gunea edo berde gunea egingo da. Udalaren asmoa pasealeku honek herria eskumaldetik gurutzatzea da, ezkerrean trenbidea geldituz. Modu honetan herriari buelta osoa eman diezaiokegu. Pasealeku berri honekin eta Gipuzkoa plazan egin den jolasteko guneaz, Udalak lehen txaloa irabazi du. Jarraitu horrela herria txukuntzen.



## Atxabalta telebista

## martizena

ALBISTEAK/Agenda  
Argazki-zaharrak  
Kirolak

Albiste errepikapena

## egukotxa

ALBISTEAK/Agenda  
Eguraldia

Albiste errepikapena

20:00

20:30 / 21:00

## Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

## Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

## Larrialdia

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdia	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

## Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15





## Santa Ageda batzen

**E**rrekaldeko Santa Ageda mutilak ditugu argazkian. Izen honekin herriaren inguruan bizi ziren baserri-auzoetakoak ezagutzen ziren. Aipatu hauek Santa Ageda egunez baserriz-baserri Santa Ageda batzen joateko ohitura zuten.

Errekaldean sartzen ziren baserri-auzoak Arbizelai, Errotetxe, Elizgarai, Oro, Apotzaetxebarri, Arantzazar, Leizabal, Agarre,

Errotabarri eta kaleko baserriak ziren.

Guzti hauetan Santa Agedaren bizitza eta heriotzaren inguruko bertsoak abestu, eta ordainez, txorizo, arraultza, odoloste, mortzil eta batzuetan dirua ere jasotzen zen. Ondoren, egunean zehar bildutakoaz, afari ederra egiteko ohitura zegoen.

Goian ezkerretik eskumara: **Conrado Eraña, Joseba Uri-**

**besalgo, Jesus Lasagabaster eta Juanito Arbulo.** Behean, **Vicente Iturriaga, Jesus Madina, akordeoilaria (arabarra), Javier Ajuria eta Timoteo Bengoa.**

*Argazkia: Timoteo Bengoa.*

*Informazioa: Timoteo Bengoa, Conrado Eraña, Juanito Arbulo.*



# LASAGABASTER



# MILURTE BERRIKO IKASTOLA




ALMEN IKASTOLA • ARRASATEKO IKASTOLA • LEHENHITZ HAUR IKASTOLA

**GURE IKASTOLETAKO BERRI IZATEKO ARETXABALETAKO  
BULEGOAN INFORMATU ZAITEZ**

**Matrikula egunak:  
Otsailak 7tik - 18ra**

***Matrikula zaitetz!!***

**Ordutegia:**



**943 79 31 32**

LARRIN PLAZA, 1  
(EUSKADIKO KUTXA ERAIKUNTZAN)





Bitxi bat eta maitasun haundi bat betiko dira.

*Bitxitegia*



*Erlojutegia*